

# Elkano, euskaldunak eta itsasoa\*

J. A. AZPIAZU

Historiador

Amigo de Número de la Bascongada

## *Laburpena:*

*Euskaldunek XVI. mendeko aurkikuntza handietan izandako parte-hartzea modu ulertezinean eta bidegabeki isildu da historiografian. Hala ere, Elkanok eta ozeanoak zeharkatu zituzten espedizio paregabe haietan parte hartu zuten euskal marinelek aldarrikatzea merezi dute. Gai horren gaineko tratatuetan nabarmena da ahanztura hori, eta agian asmo gaiztoz egina izan daiteke; hortaz, erabat berrikusi behar da, dokumentazioa oinarri harturik. Izan ere, dokumentazio hori ia ez da ikertu, baina bertan jasotzen diren fenomeno garrantzitsuek agerian uzten dute euskaldunek funtsezko ekarpena egin ziotela globalizazio-prozesuan zegoen mundu hari.*

*Gako-hitzak: Portugaldarrak eta gaztelauak. Ozeanoak konkistatzen. Euskaldunen parte-hartzea. Elkano eta haren herrikideak; 1525eko espedizioa.*

## *Resumen:*

*La participación vasca en los grandes descubrimientos del siglo XVI ha sido incomprensible e injustamente silenciada en la historiografía. Sin embargo, Elcano y los marineros vascos que participaron en aquellas extraordinarias expediciones a través de océanos desconocidos merecen*

---

(\*) Conferencia impartida en el Museo San Telmo el 10 de abril de 2018.

*una reivindicación. El olvido, quizá malintencionado, que se percibe en los tratados sobre este tema necesita de una profunda revisión basada en la documentación, apenas investigada, que acompaña a los importantes fenómenos que ponen de relieve la fundamental contribución vasca al proceso de un mundo en su proceso de globalización.*

*Palabras clave: Portugueses y castellanos. Conquistando océanos. La participación vasca. Elcano y sus paisanos. La expedición de 1525.*

*Summary:*

*Basque involvement in the great discoveries of the 16th century has been unfathomable and unjustly silenced in the writing of history. However, Elcano and the Basque seafarers who took part in those extraordinary expeditions across uncharted waters deserve recognition. The perhaps ill-natured forgetting perceived in the handling of this matter requires an in-depth review based on the little-researched documentation that traces the important events which highlight the essential Basque contribution to a world in the process of globalisation.*

*Keywords: Portuguese and Castilians. Conquered oceans. Basque involvement. Elcano and his countrymen: the expedition of 1525.*

## **Aurkezpena**

Saio honetan, Elkanoren eta bere garaiaren eta euskal giroaren inguruan hitz egiteko, Elkanoren hizkuntzan solas egingo dut, euskaraz, gaiari eta personaia hain ospetsuari dagokion bezala.

XVI. mendeko euskaldunen itsasoko berriak eta giroa 40 urtez ikertu ondoren, Elkanoren ingurugiroa nolakoa zen islatzea interesgarria izango zela iruditu zitzaidan.

Elkanoren inguruko bibliografia aztertzeke eskaera jaso nuen, eta denbora luzea eman dut beraren inguruan esandakoaren arrastoa ikertzen.

Azkenik, eta ez dut uste gutxien balio duen arrazoi bat denik, Elkanoren inguruko dokumentazio berria ere badakart, batez ere 1526an egin zuen bidaiaren ingurukoa<sup>1</sup>.

---

(1) Hauetako datu batzuk Javier Elorza ikerlari eta historiagileari zor dizkiot.

## **Erdi aroko pentsamoldeak eta itsasoarekiko harremanak**

Erdi Aroan, europarrek menderatzen zuten itsasoa Mediterraneoaren zen: erromatarrek “mare nostrum” izendatu zutena.

Baina ez uste erabat menderatzen zutenik. Braudel historialariak esaten duenez, itsasgizonek beldur handia zioten Mediterraneoari, batez ere noiz-behinka ekaitz eta enbata bortitzak jasaten zituztelako.

Beharbada, horregatik jarraitu zuten handik mende batzuetara italiarrek kostaldetik urrutira aldendu gabe nabigatzen, “costegiare” izenari lotuta itsas bazter ingurutik ibiliz. Garai berean, euskaldunek Kantauri itsaso bortitza zeharkatzen zuten, itsaso huraxe izan baitzen munduan zehar ibiltzeko jaso zuten ikasgaia: Frantzia eta Ingalaterrako portuak bisitatu, Irlandan arrantzan egin, etab. Hura izan zuten hain garrantzitsua suertatuko zitzaien eskola.

Orokorrean, Erdi Aroan itsasoa leku beldurgarritzat ikusten jarraitzen zuten:

- Itsasoa, halako batean, bukatu egiten zen, eta amildegira bideratzen zituen marinelak. Kostaldetik urruntzea, beraz, arriskutsua zen.
- Neurri onenak hartzea ere ez zen nahikoa: itsasoak bere neurriak eta jokabideak zituen, eta zurrunbiloeak, ekaitzek, olatu izugarriek eta enbategi atzera egiteko eta lehorrera itzultzeko gonbidapena egiten zuten. Baina horren berri gaur egun ere badaukagu, Erdi Aroa begiratu gabe ere.
- Munstroak, itsas mamuak ziren bertako nagusi, eta marinelek, baldintza okerrenetan, ikusi ere egiten zituzten, beren irudimen eta pentsakerak hori sinestaratzen zien, behintzat.

Itsasoa, ez zen beraz, ez mundurik ez eta destinurik aproposena.

Egia da erlijioak, garai haietan, izugarrizko indarra zeukala, eta baldintza okerrenetan, ekaitz gupidagabeen erdian, erabat sinestun agertzen ziren marinelak: hainbat ama birjinei promesak agintzen zizkieten estualdietatik onik ateraz gero.

Baina, Elizak laguntzen al zuen horrelako beldurrak gainditzen, marinelak aurrera bultzatzen?

## **Elizaren eragin ezkorra**

Eliza itsasgizonen jokaeren aurkakoa zen. Erlijioak esaten zuenez, lurra zen gizonari egokitu zitzaion esparrua. Itsasoa, aldiz, munstro, mamu eta itsas lamia, sirena gaiztoz beteta zegoen: haien mundua zen hori, ez gizonena.

Elizgizonek ziotenez, marinela diruzaleak ziren, eta dirua lortzeko Jainkoaren aginduei uko egiten zieten, itsasoratzeko hartzen zuten erabakiekin.

Halere, hori entzunda harrizkoa badirudi ere, marinelek lortutako emaitzak oso desiratuak ziren Elizarentzat, eta marinelek egindako gaiztakeriaren ordainean Elizak dirua, edo arraina, eskatzen zuen. Ternuako balentria gertatu zenean, itsasontzi batzuetan apaizak eramaten zituzten beraiekin, meza eman eta Jainkoaren babesak lortzeko. Laguntza horren truke, apaizak balea olio kupel bat jasotzen zuen, agirietan azaltzen denez.

Beharbada euskal elizgizonak izan ziren Eliza ofizialak orokorrean madarikatzen zituen ohitura horien aurka agertu ziren lehenengoak, olioaren truke.

### **Portugesen lorpen garrantzitsuak**

Halere, itsas munduan, marinelek aurrera jarraitu zuten, arriskuari aurre eginez.

Portugesak izan ziren Erdi Aroko bukaera aldera itsasoan nagusitu zirenak. Baina ez zitzaaien erraza suertatu, ez horixe.

Begira zein bide egin zuten, Afrikako kostaldea zeharkatuz, ia mende batean zehar:

Madeira: 1420an aurkitu zuten

Cabo Bojador: 1434an gainditu, ikara ematen zuen muga gaindituta<sup>2</sup>

Azores, 1435ean

Cabo Verde Irlak: 1456an

Cabo de las Tormentas: 1488an, Bartolomé Díaz

Vasco de Gama: 1497an Cabo de Buena Esperanza zeharkatu eta Afrikako ekialdeko kostaldean zehar Indiarantz joan zen

1512. urtera arte ez ziren portugesak Indikoko nahiz Itsaso Bareko itsas merkataritzaz jabetu

---

(2) P. RUSSEL. *Prince Henry "the Navigator". A life*, Yale University Press, 2001, 109. orr. Bojador gainditu gabeko puntua zen. Hau da marinelek uste zutena: hortik aurrera joanez gero, ezin zela bueltatu, zurrunbiloak eta itsaso gaiztoak irentsiko zituela uste zuten. Beldur hori gainditzeko, Endrike printzeak bere kapitain bat derrigortu zuen aurrera joateko, eta handik gutxira bueltatu zela ikusitakoan, mito beldugarri hura desegin egin zen. Portugalen heroi bezala gorai patu zituzten marinel haiek.

Magallanes, nolabait, marinela portugaldar horien ordeko da, haien eskolaren jarraitzailea, batez ere *kartografia* mailan.

### **Gaztelako erresuma, Atlantiko itsasoa zeharkatu eta kontrolatuz**

Portugaldarrek Ekialdera jo zuten bezala, Gaztelakoek mendebaldera bideratu zituzten beren urratsak, Kanariar Uhartek abiapuntu hartuta.

Colonen ekialdeko lurraldeetara iristeko asmoa zuen, baina bide berriak irekita. Ordurako, beharbada, mundua borobila zenaren susmoa indartuta zegoen, batez ere kosmografo jakintsuen artean.

Bidean, mundu berri bat aurkitzea egokitu zitzaion, aurrenekoz Las Indias/Indiak, geroago Amerika deitu izan zena.

Ez dago zalantzarik espedizio haietan parte hartzen zuten marinela erabat abenturazale eta arriskuzaleak zirela: ez zekiten zehatz mehatz nondik nora zebiltzan. Eta, Indiei dagokienez, hauxe da nire galdera: edo bai?

Colonen inguruan, adibidez, ez al zen mito bat jaso, amesle edo bisionario bat zela-eta? Noraino zen bide berrien asmatzaile, eta zein neurritan beste marinela batzuen jarraitzaile? Eta zenbateraino zegoen haiekin zorretan, aintzindari haiek erabat ixilean eta ilunpean baztertua?

### **Miguel de Ibarra, zumaiar kapitaina**

Irakur dezagun 1504an idatzitako dokumentu hau:

*“Ochoa de Landa, nos vos mandamos que de qualesquier maravedís de vuestro cargo dedes e paguedes a los herederos de Miguel de Ybarra, defunto, o a quien su poder obieres, 69.017 maravedís que le son devidos para cumplimiento de los 151.693 maravedís que ovo de aver de su sueldo e flete e averías e otras cosas del tiempo que sirvió con su nao e gente en el viaje que fizo por nuestro mandato a las Yndias con el Comendador Mayor de Alcántara el año de noventa e dos, según pareció por fenecimiento de cuenta firmado por Ximeno de Briviesca, nuestro contador delas cosas de las Yndias...”*

Eta honela bukatzen da: *“Por mandato del Rey e de la Reyna”*<sup>3</sup>. Miguel de Ibarrarekin joan zen Comendadore hura Diego de Santillán zen, eta 1492ko udaberrian egindako bidaia hartarako zumaiar kapitainaren itsasontzia erabili zuten.

---

(3) AGS, C. y S. Reales, Leg. 4, f. 352.

Orain arte ez da galdetu ere egin Colonen aurretik inor Amerika aldera hurbildu zenik, edo horretarako errege-erregina katolikoen agindua, edo bai-  
mena, jaso ote zuenik.

1492ko apirilaren 17an sinatzen dira “Capitulaciones de Santa Fe” dei-  
tutakoak, non Coloni ematen zitzaion Indien inguruan aurkitu zitzakeen  
lurralde guztietako ia aginte osoa. Esan beharrago dago Colonen espedizioa  
oso berandu irten zela: abuztuaren hiruan.

Beraz, Ibarra Colon baino lehenago abiatu zen itsasoz bestaldera, eta  
ordainketa agiriak dioenez Indietarako bidaia hori bete zuen. Bidaia hori, gai-  
nera, ezin zitekeen Colonen bidaiaren ondoren gertatutakoa izan, harrez gero  
Colonek hartu baitzuen kontrol osoa.

Iritsi al zen Ibarra Ameriketara? Begira 1504an Zumaiko alkateak eska-  
tzen duena: Fernando Katolikoak agindutako marabediak ordaintzeko Ibarra  
sendikoei.

*“que por sus Altezas le eran devidos al dicho Miguel de Ybarra e a  
su nao e compañía, del sueldo y del tiempo que en su servicio estovo con la  
dicha nao e compañía del viaje de las Antillas”.*

Ibarra eta bere semea bidaia hartan hil ziren. Non? Nola? Ez dakigu: hori  
azaldu zezakeen testamentua, Ibarraren alargunak Sevillan egindakoa, gal-  
duta dago. Horrek bidaiaren hainbat xehetasun interesgarri argituko litzuzke,  
baina... historia horrela idazten da.

Susmagarria da Comendadorearen portaera. Ziur asko errege-erregina  
Katolikoei Antilletako inguruko berriak kontatuko zizkien, Ibarrarekin egin-  
dako bidaiari zer ikusi zuten adieraziz, eta horrek bultzatuko zuen Coloni  
agindu zion guztia: Colonek, ziur asko, bazekien horren berri, eta aginte osoa  
eskatu zuen, eta berehalaxe moldatu zen bidaia, tartean euskaldun multzo bat  
zihola.

Elkano eta Ibarra kapitainen bideetan parekotasun misterioitsua sortzen  
da: Magallanes eta Colonen alboan egon, hain protagonismo handia izan,  
baina... historiak ez du justiziarik egin marinel euskaldunekin.

### **Euskaldun mariñelen ekarpenak, zapuztuta edo ixilduta**

Elkano eta Miguel Ibarra ez dira izan historiografiak ilunpean utzi dituen  
euskaldun itsasgizon bakarrak.

Jakina da oraindik Euskal Herriaren historia osatu gabe dagoela, hainbat  
hutsune eta iluntasun dagoelako gure gorabeheren inguruan.

Gure xedeari jarraituz, hauetako hiru puntu hartuko ditugu kontuan, baina garbi dago aztertu eta argitu behar diren arloen zenbakia ezin sinisteko modukoa dela.

### ***Errege probidentzialista eta buruzagi ustelak***

Gaztelako Errege gehienek ez zuten itsas munduko ezaguera funtsezkorik, nahiz eta itsasoa izan XVI. mendeko munduaren kontrola ematen ziena. Horrela ulertzen da agindu desegokiak eta jokaera okerrak hartu izana. 1588ko itsas sarraski izugarria suertatu zen euskaldun itsasgizon eta ondasuentzat. Baina bazen sarraski horretan errudun nagusi bat: Felipe II.a. Bere ustez Jainkoak gantzutua, eta probidentziak protestanteen aurka borroka egiteko aukeratua izanik, estrategia eskasa erabili zuen Armada famatua eratzeko. Baina oraindik erabaki okerragoa izan zen Medinasidonia buruzagi bezala jartzea.

Medinasidonia ez zen itsasgizona, baina horretarako aristokrata bat behar zen, Erregearen ordezkari duin bezala, eta gizon hark sarraskira eraman zuen Armada handi hura.

Tellecheak, Armadari buruz egindako lan mardulean, oso gaizki uzten du delako Medinasidonia hori. Bere mende zeuden kapitain hain ospetsuei, tartean Rekalde eta Okendo euskaldunak, ez zien jaramonik egin, eta hondamendira eraman zuen enpresa osoa<sup>4</sup>. Itsasoan Medinasidoniaren gaitasun eza adierazteko, eta erakutsi zuen koldarkeria leporatzeko, begira zer esan zion Alonso de Leiva jaunak, buruzagia itsasontzira hurbiltzerakoan beldurrez zegoela ikustekoan: “*¡Cuerpo de Dios!, que nos ha dado Su Magestad un hombre para la mar que no sabe aun andar por tierra*”<sup>5</sup>. Tellechea berak jasotzen duenez, hau dakigu: “*Llevaba el Duque en su galeón 600 hombres, los mejores y más experimentados de toda la armada, escogidos de todas las compañías, dos de cada una, y tomando juramento a los capitanes de que aquellos eran los mejores*”. “*El Duque estaba concertado con el piloto que lo alejase siempre del peligro, y creerse puede, pues tal anduvo que huyó del enemigo que huía de él*”<sup>6</sup>. Diotenez, Valladolid aldera joan zenean, jende guztiak Medinasidoniari iseka eta burla egiten zion, erakutsi zuen koldarkeria aurpegiratuz.

---

(4) J. I. TELLECHEA IDÍGORAS. *Otra cara de la Invencible. La participación vasca*, Donostia 1988, p. 145.

(5) *Ibidem*, p. 190.

(6) *Ibidem*, pp. 194-5.

### ***Gaztelako agintarien porrot ulertezinak itsas arloan***

Gaztelako erregeen buruan ezinezkoa zen horrelako enpresa garrantzitsu bat edozein kapitanean eskuetan uztea. Gauzak horrela, erregeak bere gorteko norbait izendatzen zuen, itsas munduari buruzko ezertxo ez bazekien ere.

Horrelako zerbait nabaritzen da, halaber, 1708. urtean Donostian gertatutako pasadizo batekin. Mende bat lehenago, 1615ean, Felipe III.a igaro zen Donostiatik, eta bere omenez itsas jokoak asmatu zituzten bertako agintariak, tartean mutil gazteek txalupetan borroka antzeko imintzioa egiten zutelarik. Erregeari asko gustatu zitzaion, baina ez hainbeste korregidoreari, mende bat geroago.

Hark agindu zuenez joko haiek astakeria hutsa ziren, “juegos bárbaros”, eta debekatu egin zituen. Garai hartan Donostiko alkatea ez zegoen hirian, kanpoan zen, baina bigarren alkatea hau bota zion Korregidoreari: ea bere ustez nondik aterako ziren marinela horrelako jokorik egiten ez bazuten. Espainiako itsas mugak defendatzen zituzten itsasontziez eta marinelez ari zen, hain zuzen ere.

Korrejidorea legegizona zen, baina itsas konturik inondik ere ez zekien, eta Donostiar agintariak aurre egin zion.

### ***Villafranca marinela sendia, Erregearen eta itsasoaren biktima***

Egoera horren adibide izan zitekeen lekuko aproposa Martín de Villafranca dugu, Islandiarrek hil zutena. Bere aitaita, *Santa María de la Rosa* itsasontzi galantaren jabea zen, baina 1588an hil egin zen, izurriteak jota, Lisboan. Haren semea, Martín de Villafranca hura ere, Irlandan hil zen, *La Rosa* itsasontzia murgildu zenean. Hirugarren belaunaldiko Martín, umezurtz eta ondasun gabe gelditu zen.

Halere, badakigu haur eta nerabe denboran zer bizimodu egiten zuen Donostiako portuan: mutil gazteekin jolastuz gogortu, batzuetan izarrazpian lo egin, etxetik kanpo, beste batzuetan zirujauen eskuetan ikusten dugu, bihurri xamarra bera, zauriren bat sendatzen. Egoera gogorra umezurtz harena, gero etorriko zitzaion bizimoduari aurre egiteko prest egoteko zaildu zuena, beste gazte batzuk bezala. Islandiarrak, adibidez, harrituta gelditu ziren erasotu ondoren Martinek nola egiten zuen igeri ikusita: Donostiko itsasbazterre-tan ikasita, zalantzarik gabe<sup>7</sup>.

---

(7) J. A. AZPIAZU. *Hielos y océanos. Vascos por el mundo*, Donostia 2016, p. 229 y ss.



## Ternua, euskal marinelen beste presentzia harrigarria

Elkanok, Urdanetak eta Legazpik ere Gaztelako errege-erreginen armadan parte hartu zuten, bai Ameriketako lurak kolonizatzeke, eta baita lurralde berriak eta itsas bide berriak aurkitzeko ere, edota munduari lehen bira osoa emateko.

Elkano bizi izan zen garaiaren inguruan, hala ere, euskaldunak beren kasa ere ibili ziren, errege-erreginen interesen aurka. Hain zuzen ere, Ternuan. Michel Barkhanek dioenez, 1520-1530 hamarkadan gutxiago nabaritzen da presentzia hori, Carlos V.a Frantziaren aurka borrokan zebilelako<sup>8</sup>.

2008an idatzi nituen irizpide labur batzuk adieraziko ditut berriz ere hemen: “*Lo que rodea a los acontecimientos de Terranova roza la frontera de lo inverosímil*”, edota “*desde nuestra perspectiva del siglo XXI resulta improbable indagar con éxito en la mente y en los esquemas marineros del siglo XVI*”, eta ondoren: “*La política castellana —o quizá su falta de visión política— en temas marinos explica en buena parte el declive que sufrieron las pesquerías vascas de Terranova*”, kontuan hartuta handik zetorrela euskaldunen aberastasun nabarmena<sup>9</sup>.

1531n, Elkanok mundubira lortu eta bederatzirte geroago, edo bere heriotzaren ondoren bost urte igarota, garbi dago euskaldunak Ternuan erabat finkatuta zeudela.

1531ko urtarrilaren 14an gaude. Mutrikuko eskribau baten aurrean hitzarmen edo kontratu hau egiten da Ternuara joateko:

*“Que así fecha la dicha pesca, el dicho maestre sea obligado de vuelta viniendo de la dicha Tierranueva, de llegar aviendo tiempo con la dicha su nao en alguno puerto de Yrlanda... para saber ende si hay paz o guerra entre los reyes cristianos”*<sup>10</sup>.

Zer arrazoi zegoen egoera horien berri jakiteko? Oso sinplea: Carlos V.a Ingalaterrarekin borrokan baldin bazegoen, arraina La Rochelan edo Ruanen saltzeko bidea hartu behar zuten, eta bertan hamar egun egin. Alderantziz, momentuko aurkaria Frantziako Erregea baldin bazen, Londres edo Bristolera joateko agindua zeukaten.

---

(8) “La industria pesquera en el País Vasco peninsular al principio de la Edad Moderna: ¿Una edad de oro?”, *ITSAS MEMORIA-3*, (2000), p. 55.

(9) J. A. AZPIAZU. *La empresa vasca de Terranova. Entre el mito y la realidad*, Donostia 2008, pp. 9-11.

(10) *Ibidem*, pp. 40-41.

Agiri horrek erakusten duen “estrategia komertzial” konplexu hau ez da egun batetik bestera asmatzen. Urteak behar dira horretarako, eta susmo horrekin, ezpairik gabe, Ternuara joaten ziren euskal arrantzaleek eta Elkanoren bidea jarraitzen zutenek, mundu berdin bateko bi aurpegiak besterik ez dituzte erakusten.

Euskaldunak ez zeuden amore emateko moduan eta ez zuten Ternuako arrantza baztertzeko inolako asmorik, ez Gaztelako ez eta Frantziako errege-erreginen aurrean ere.

Hori frogatzen duen pasadizo garrantzitsua 1555. urtean gertatu zen. Aurreko urtean, Felipe printzeak Ingalaterrara joan behar zuen, garaiko ezkontza politikari jarraituz, ea hango erreginarekin ezkontza moldatzen zuten. Horretarako, Ternuara joateko prest zegoen itsasontzi flota bat bahitu eta printzearen zerbitzuan jarri zuten, Ingalaterrako bidaia egiteko.

Urte hartan itsasontzi banaka batzuk bakarrik mugitu ziren, gainera oso berandu, Ternuarantz. Hara iritsi bezain pronto, han arrantzan zeuden frantsekak, gehienak Iparraldeko euskaldunak, Hegoaldeko itsasontziak eta marine-lak beren zerbitzuan jarri zituzten, indarkeria baliatuz.

Arrantza garaia bukatu zenean, Hegoaldeko marinelek ontzi bakar batean itzuli behar izan zuten.

Portaera horrek su eta gar jarri zituen Gipuzkoako marine-lak, eta negu guztian zehar, Erregearen aginduaren aurka, mendeku armada bat moldatu zuten, espedizio gogorra, alde batetik Frantzia aldeko portuak deseginez, eta ondoren Ternuara abiatu eta Iparraldeko flota erasotu eta zigor izugarria eraginez ordainean<sup>11</sup>.

Elkano, Miguel Ibarra, Urdaneta, gizon ausartak, marine-l paregabeak ziren denak, Ternuara joaten zirenak bezala. Michelet historiagile frantses famatuak, horietaz hainbat zekienak, honako hau esan zuen: “euskaldun horiek eroak dira”, baina ez gutxiesteko asmoz, baizik eta eroak eta heroiak zentzu batean lotuta, ez burugabe edo zentzugabeak, alegia.

Garbi dago garai hartako euskaldunak historia barruan arrazoi guztiz sartu zirela, baina oraindik historiak ez die merezi duten ospea edo garrantzia agerrarazi. Hori izango da, beharbada, euskaldun historiagileen eginbeharra.

---

(11) J. A. AZPIAZU. “Guerra y supervivencia. Un episodio del curso guipuzcoano de mediados del siglo XVI”, *ITAS MEMORIA*-5, 279-300.

## Elkano, munduari jira eman zueneko berri batzuk

### *Jaso zituen soldatak*

1525. urtean, ondo ezagutzen den bezala, Elkanok, eta Urdaneta mutil gazteak, Moluka uharteetara egindako espedizioan parte hartu zuten. Almirante bezala García Jofre de Loaysa zihoan, eta bidaiak hamaika urte iraun zuen.

Bidaiak arrisku handiak zituen, baina Carlos V.ak, espezia negozioan portugaldarrei aurre egitea erabaki zuen.

Orokorrean bidaiak traketsa eta hondamen haundikoa suertatu zen. Loaysa eta Elkano hil egin ziren, parte hartu zuten zazpi itsasontzietatik bakarra bueltatu zen, eta 450 gizonetatik, 24, tartean Urdaneta.

Jakina da Elkanori, munduari bira eman ondoren, urteroko 500 dukateko saria agindu ziola Enperadoreak, nahiz eta Elkanok diru horretatik sos bakar bat ere ez zuen jaso.

Zerk bultzatu ote zuen Elkano horrelako bidaiak batean berriz ere parte hartzera? Pentsa dezakegu diru faltak mugituko zuela abentura hartan sartzera.

Baina ikusiko dugun bezala, ez zen diru kontua izan. Itsasoa zen Elkanoren patua, bertan zegoen bere bizimodua, eta baita bere heriotza ere.

Indietako Artxibo Orokorrean aurkitutako dokumentuetan garbi agertzen da Elkanok 1523 eta 1524 urteetan dirutza handiak jaso zituela 1522an bidaiak amaitu ondoren.

Uste dut interesgarria dela agirian agertzen diren berriak irakurtzea:

*Relación del sueldo debido al capitán, oficiales y compañía de las naos Vitoria y Concepción —que se deshizo— y Santiago —que se perdió—, de la armada que fue a la Especiería con el capitán Hernando de Magallanes, desde el 10 de agosto de 1519 que partió de Sevilla, hasta que volvió a ella la nao Vitoria en 8 de septiembre de 1522, que son 3 años y 28 días, a los quales se les quita lo que a cada uno se le dio en Sevilla de socorro, y más se les ha de quitar lo que cada uno ha rescibido en el viaje de las mercaderías del armazón, y lo que a cada uno se debe, es lo siguiente:*

- *El capitán Juan Sebastián d'Elcano, que fue por maestre de la nao Concepción y fue mudado de ella con mandado del capitán, e vino en la nao Vitoria por capitán. Sirvió de maestre desde que partió de Sevilla, que fue a 10 de agosto de 1519, asta el lunes 16 de setiembre de 1521, que son 25 meses y 6 días, que a razón de 3.000 maravedís por mes, montan 75.600.*

- *Y sirvió de capitán en la nao Vitoria 11 meses e 22 días, que a razón de 4.000 maravedís por mes, montan 46.926 maravedís, que así a de aver por todo lo que a servido de su sueldo 122.526 maravedís, de los cuales se quitan 18.000 maravedís que se le dieron en Sevilla de socorro de paga de seys meses, que a de aver 104.526 mrs (279 urrezko dukat).*
- *508.725 maravedís (1.357 dukat) que montan 302 quintales de clabo que le quedó neto, quito beyntena e quiebra de su cámara e quintalada, que es a razón de 42 ducados el quintal.*
- *Pagaronse en 11 de março de 1523, 104.526 maravedís, de que dio conocimiento. Más se le pagó 508.725 maravedís, las 327.900 en 6 de mayo de 1523 y el resto en 25 de junio de 1524<sup>12</sup>.*

Agiri honen arabera, Elkanok dirutza jaso zuen, eta lasai ondo bizitzeko moduan geratu zen. Ez zuen, beraz, diru beharrak lotu espedizio berri horretan parte hartzera. Kontuan hartu beharko genuke garai hartan, zurgin edo artisaubatek 4.000 marabedi (10 dukat eta erdi) irabazten zituela urte batean, Elkanok, kapitain bezala, hilero irabazten zuena.

### ***Mundu biran Elkanorekin batera joan ziren gipuzkoarrak***

1522an Elkanorekin bueltatu zirenak 18 besterik ez ziren. Horien artean, hiruzpalau bizkaitarrak.

Elkanorekin batera atera eta desagertu zirenen artean, Elkano kenduta, zazpi ziren gipuzkoarrak<sup>13</sup>. Harritzekoa da haietatik gehienak barrualdeko herritarrak zirela.

- Martín de Barrena, Ordizikoa, hil egin zen.
- Lorenzo de Yrura, Sorabillakoa, hau ere hilda.
- Juanes de Segura, seguratarra bera, Sevillan ezkondua, hil egin zen.
- Pedro de Tolosa, tolosarra, berdin.
- Martín de Gárate, Debakoa, hau ere hilda.
- Johan de Elorriaga (itzultzea lortu zuen susmoa dugu).

---

(12) ARCHIVO GENERAL INDIAS - Contaduría del Sueldo, 425, N.1, R.1.

(13) A.G.I., Patronato, 34, R.6.

- Joanes de Yrun-Urançu, abizenak adierazten duenez, irundarra, (honek ere itzultzea lortu zuen susmoa dugu).

### ***Elkanok 1525. urtean Moluketara egindako bidaia eta euskaldunen partzaidetza***

1524ko apirilean astrologo eta itsasgizon ospetsuak bildu ziren, tartean Juan Sebastian Elcano eta Hernando Colón, Burgosen. Han erabaki zen, Tordesillasko hitzarmena zehaztuz, Moluken artxipelagoa edo uhartedia Espainiako erresumari zegokiola<sup>14</sup>.

Erabaki horren ondoren, Enperadoreak armada bat eratu zuen, García Jofre de Loaysa Mantxako fraidea buru zuela. 1525eko uztailaren 24an A Coruñatik atera zen Portugaleten moldatutako zazpi itsasontziko Armada, portugesei aurre egiteko asmoz.

Espedizio hartan, nola ez, Elcano agertzen da izen eta izar nagusi bezala. Aureko espedizioan, 1519an, barrualdeko gipuzkoarrek ere parte hartu zuten. Oraingoan, arrazoi gehiagorekin, Elkanoren itzalean marinel gehiago bildu ziren bidaia berrirako.

Elkanok, Getariakoa izanik ere, oso harreman estua izan zuen Deba bailarako biztanlegoarekin. Kontuan hartzekoa da bere testamentuan, Getariako elizarako 6 dukat bakarrik eman zituela. Aldiz, Sasiola komentuari 10 dukat, eta, harritzekoena, Itziargo elizari 40 dukat.

Bestalde, armada moldatzeko oso kontuan hartu zituen bere familiakoak, baina baita Deba bailarakoak ere. Horien tartean, Elgoibarko taldea ere eraman zuen, Martín Iñíguez de Karkizano, Karkizano de Susoko nagusia zen buru bezala zihoana<sup>15</sup>.

Ez da harritzekoa Elkanok Karkizano sendiarengan konfiantza izatea. Kontuan hartu beharko genuke Deba arroak ibai garraioan eta merkataritzan izan zuen garrantzia. Altxola, Elgoibarko auzoa, Gipuzkoako merkatalgune oso garrantzitsua zen, eta Karkizanotarrek, besteak beste, zer esan handia

---

(14) A.G.I., Patronato 40. N.1, R.5.

(15) *Ibidem*. Patronato, 38, R.1. Testamento del capitán Juan Sebastián de Elcano, otorgado en la nao Victoria el 27-07-1526.

zeukaten arlo honetan eta itsas munduan, eta are gehiago itsasontzi eta marinel asko eman zituelako<sup>16</sup>.

Delako Martín Iñiguez de Karkizanok denetarako balio zuen, nonbait. Olagizon, burni arloan merkatari, armagizon, itsasgizon, korsario..., ez zen harritzekoa Elkano bezalako batekin bat egin ahal izatea. Izan ere, biak ziren nahiko abenturazaleak. Karkizanoren testamentuan zera agertzen da: oso estimu handian omen zeukan etxean gordetzen zuen eta Elkanok oparitutako zilarrezko goilara eder bat, garai hartan oso estimatua zen mahai tresnatxoa<sup>17</sup>.

Loaysa komendadorearen armadan Elkano zen pilotu nagusia, eta honek bere konfiantzazko jendea kokatzen du espedizioko ardatz bezala: Martín Iñiguez de Karkizano itsasontzi nagusiko disziplina arduradun bezala; koinatua zen Santiago de Gebara, patatxe baten arduradun; Kapitana edo itsasontzi nagusian elgoibartarrak kokatuko ditu: Martín García de Karkizano, marinel gisa; Hernando de Legarda, zurgin bezala, itsasontziko matxurak konpontzeko; Juan de Lasalde, grumete edo marinel ikasle, eta oraindik haur bat bes-terik ez zen Andrés de Karkizano, garbitzaile eta sare konpontzaile bezala. Bi gazte hauek, lurlean langile nagusi batek irabazten zuen adina jasotzen zuten.

Dakigunez, Elkano berak bere sendiko hainbat gizon eraman zituen, eta horrela espedizioan nagusi ziren euskaldunak, Magallanesen bidaian portugesak izan ziren bezala.

Bidaia arriskutsua zen, eta horrek eraginda, soldatak ere sendoak ziren, behinik behin lurlean irabazten zena kontuan hartuta: hiru edo bost urrezko dukat hileru, eta goi mailakoek (diruzainek, faktoreek...) zortzi dukat. Elkanok, bidaian parte hartzearen, urrezko mila dukat jaso zituen, dirutza izugarria.

Elgoibartarrak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari ziren, batez ere bidaian gertatutako istripuak kontuan hartuta: Zumaiako klerigo edo elizgizona zen Juan de Jausoro, espediziotik bizirik atera zen batek hau aitortu zuen: *“fue hasta pasar el estrecho de Magallanes, donde llegados por fortuna de tiempo, se desderrotaron las naos..., e aquella armada se desbarató en fin de mayo de 1526, e de siete naos quedó una, que nunca más vieron*

---

(16) J. A. AZPIAZU - Javier ELORZA, *Deba, una villa de vocación marinera y mercantil (siglos XV-XVIII)*, Deba 2011.

(17) AGI. Patronato 39, R.3. En testamento de Martín García de Carquizano, otorgado en 1529.

*las otras*”<sup>18</sup>. Elgoibartarrak bidaia burutu zuen itsasontzian zeuden, eta beren ekarpena oso garrantzitsua izan zen espedizioa aurrera eramateko: asko gaitxoitu eta hil egin baitziren, batez ere eskorbutoarean eraginez. Elkano ere hil egin zen, nonbait arrain pozointsu bat jan ondoren, eta itsasontziaren agintea elgoibartarren eskuetan geratu zen.

Hauxe adierazi zuen Lepeko marinel andaluz batek:

*“que luego que las naos se derrotaron pasadas las 400 leguas después de aber enbocado el estrecho (de Magallanes), murió Loaysa de enfermedad e murieron también todos los hombres principales que venían con él, en tiempo de quarenta días. Y por muerte de Loaysa y como ubieron muerto los principales, eligieron por capitán a Carquiçano, alguacil del armada, y este Carquiçano la gobernó hasta que llegaron a la isla de Tidore”*<sup>19</sup>.

Handik gutxira Loaysaren ordezkotza zen Toribio Alonso de Salazar ere hil egin zen. Zein izendatuko kapitain nagusi eta Karkizano bera. Gainera, Maluco uhartetiko gobernadore izendatu zuten. Titulu berri horrek hilerotako 244 urrezko dukat zekarren berarekin, soldata neurrigabea elgoibartarrentzat<sup>20</sup>.

Moluketara iritsi zen itsasontzi bakarra Victoria izan zen, eta Karkizanoren agindupean geratu zen, 1526ko azaroaren 30ean. A Coruñatik 450 gizon atera baldin baziren, 115 iritsi ziren Moluketara. Tidore irlan lur hartu eta hona hemen zer erabaki hartu zuten: *“y allí dexaron el artillería y sus mercaderías y comenzaron a hazer un baluarte para su defensa”*.

Laister agertu ziren portugesak eta eraso egin zieten, baina laister alde egin zuten. Karkizanak bueltatzea erabaki zuen, Enperadoreari denaren berri emateko, baina Victoria itsasontzia erabat ustelduta zegoen, eta arraun eta belazko itsasontzi bat egitea erabaki zuten.

Karkizano kapitaina handik gutxira hil zen, *“en la isla e ciudad de Tidore, que es una de las cinco islas del Maluco”*.

Karkizano hil eta 24 urte geroago, bere sendikoak oraindik pleitotan zebiltzan, Enperadoreak agindutakoa jaso ez zutelako. Elkanorekin gertatutakoa, eta baita Miguel de Ibarrarekin gertatutakoa, Karkizanorekin ere suertatu zen. Hori izan zen hainbat euskaldun marinelen patua.

(18) *Ibidem.* 39, R.14. Declaración de Juan de Jausoro, alias de “Areyçaga”.

(19) *Ibidem.* 37, R.30. Declaración de Juan de Mazuecos, marinero de la nao Victoria.

(20) *Ibidem.* 40, N.1, R.4.

Karkizanoren heriotzaren inguruan hau esaten zen: portugesezko pozoina emanda hil zela. Hori dio Andrés de Urdaneta ordiziarrek, bizirik atera zen bakarretako bat. Honek dioenez,

*“vinieron unos portugueses a la isla de Tidore y en una taza de vino tuvieron manera de darle ponzoña a Martín Yñíguez de Carquiçano, nuestro capitán, el qual murió luego... E que los mismos portugueses e especialmente un fisico que consigo traían, se abía alabado a la puerta de la fortaleza, que él hera el que abía muerto con ponzoña al capitán Carquiçano”<sup>21</sup>.*

Urdaneta oraindik mutikoa zen, eta portugesak ez zituen bere gustoko. Alderantziz, haien aurka amorru bizia sortu zitzaion, eta egindako salaketa ez zen izan beharbada egokia. Beste dokumentu batzuen arabera, Karkizano ez zen pozoinduta hil.

## AZKEN ONDORIOAK

Elkano, Urdaneta, Karkizano, Miguel de Ibarra, eta Ternuan, Groenlandian, Islandian eta beste hainbat tokitan ibilitako euskaldunak gogoan hartu behar ditugu. Ez dugu haietaz gauza askorik ezagutzen. Bostgarren mendurrena hurbil daukagula eta, San Telmoko moldatu duen hitzaldi ziklo hau bezalako ekintzak bultzatzea beharrezkoa da. Euskaldunok ezagutzen eta estimatzen ez duguna ez da beste herrietara zabalduko. Gure historiaz harro sentitzen garenean, gure heroiak ilunpetik ateratzen ditugunean, orduan zabalduko da gure itsasgizonen izena eta ospea mundu zabalean.

---

(21) *Ibidem.* 37, R.35.